

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2009

2go FINALAURREKOA – GASTEIZ Aurkezlea: Inazio Usarralde
--

GAIK

8KO NAGUSIA

Xabier Paya eta Arkaitz Estiballes

Herri txiki bateko bikotea zarete, eta denda txiki bat daukazue. Alaba atxilotu zutenetik, herritar batzuek utzi egin diote zuen dendan erosteari.

Xabier hasita, hiruna bertso zortziko handian.

Unai Iturriaga eta Iñaki Zelaia

Kalean zabiltzatela, odola emateko autobusa ikusi duzue, eta ilara luzea dago sartzeko zain.

Unai hasita, hiruna bertso zortziko handian.

Maialen Arzallus eta Miren Amuriza

Gerra-garaian, haurrak zinetela, Errusiara eraman zintuzteten, eta han bizi zarete harrezkero. Jaurlaritzaren gutun bat jaso duzue orain omenaldi batean parte hartzeko.

Maialen hasita, hiruna bertso zortziko handian.

8KO TXIKIA

Arkaitz Estiballes eta Unai Iturriaga

Aireportura joan behar duzu, Arkaitz, eta Unaiiek esan dizu eramango zaituela. Autoan daramazuen denboran, seigarrenez pasatu zarete leku beretik.

Arkaitz hasita, hiruna bertso zortziko txikian.

Miren Amuriza eta Xabier Paya

Euskal Herria tandem baten gainean zeharkatu nahi duzue. Kilometro bat besterik ez duzue egin, eta Xabierrek pedalei emateari utzi dio.

Miren hasita, hiruna bertso zortziko txikian.

Iñaki Zelaia eta Maialen Arzallus

Komunera joaten zaretenean, ezberdin jokatzeko duzue oso. Zuk Iñaki ezertan hasi aurretik garbitzen dituzu eskuak. Maialenek lanak amaitu ondoren garbitzen ditu.

Iñaki hasita, hiruna bertso zortziko txikian.

PUNTUARI ERANTZUNAK

Xabier Paya
Arabako ardoa / oso sonatua
Zuri, beltz ta gorria / hirurak aukeran
Baso bat ona ei da / osasunerako

Arkaitz Estiballes
Gasteiz neguan dugu / hotza oso hotza
Belarrietaraino / tapatuta hemen
Baina Lurra gero ta / beroago dago

Unai Iturriaga
Unibertsitatean / ikasle ugari
Gasteizen ostegunek / omen dute fama
Parranda, ikasketak / bikote polita

Iñaki Zelaia
Trebñuk izan nahi du / Arabako parte
Urrun sentitzen dugu / gugandik Gaztela
Goazen Trebiñora / Txapelketarekin

Maialen Arzallus
Txerria gizenduta / San Martinetan jai
Txorixo, odolki ta / urdaiazpikoa
Zerri ugari bada / gure inguruan

Miren Amuriza
Juanito Oiartzabal / ezaguna dugu
Zigarroa erreta / Everesten gora
Orain telebistako / izar bihurtu da

6 PUNTUKO MOTZA

Arkaitz Estiballes eta Maialen Arzallus
Bikotea zarete, eta gustura izango zenukete haur bat, baina badakizue gaixotasun genetiko bat izateko arriskua duela. Zuk Arkaitz saiatu egin nahi duzu. Maialenek ez.

Arkaitz hasita, hiruna bertso hamarreko txikian.

Xabier Paya eta Iñaki Zelaia

Hilabete daramazue ezkondata. Gaur Xabier, Iñakik esan dizu ezin duela zurekin segi.

Xabier hasita, hiruna bertso hamarreko txikian.

Unai Iturriaga eta Miren Amuriza

Bikotea zarete. Mirenek minbizia izan zuen, eta, sendatu zen arren, harrezkero ez du zure aurrean biluztu nahi, Unai.

Unai hasita, hiruna bertso hamarreko txikian.

KARTZELA

Mezu hau jaso duzu mugikorrean: Ez egon nire zain.

Hiru bertso nahi duzun doinu eta neurrian.

